




iragan hurbila

A U R K I B I D E A

1 Kontzeptuak

2 Urratsak

3 Aktibitateak

4 Ebaluaketa

5 Jakintasunak eta hizkuntza edukiak

1 KONTZEPTUAK

Bere familiaren inguramenean haurrak senditzen ahal duen denboraldia da. Bizpahiru belaunaldi hunkitzen ahal ditu.

Hamar urteko multzoari hamarkada deitzen zaio eta ehun urteko multzoari mende edo gizaldia. Irakurtzerakoan, 60. hamarkadan edo 90. hamarkadan erraiten da. Gisa berean XX. edo XXI. mendean.

2 URRATSAK

"Norat joan jakiteko, nondik jin jakin behar" dio erran zaharrek.

"Haurrak, zibilizazio elementuen ikerketa batzuetatik, belaunaldiez berak bizi duenetik abiatuz eta urruneko iragana bereiziz, urrats kronologikoen ordenatzen hasi behar du" diote irakaskuntza helburuek. Iragan hurbilaren azterketak lagunt dezake haurra horretan.

Oraina eta iragan hurbilaren erro-adar horien ezagutzea behar-beharrezkoa da haurraren garapenarendako eta orekarendako. Azken hau bereziki 5 eta 9 urteen artean.

Helburua :

- loturaren egitea oraina eta iraganaren artean
- haurrak urrats kronologikoak ordenan ezartzea.

Metodologia :

Lan hau ikasturtearen programaren barnean kokatzen da eta burrasoak jakinean eman behar dira urte hastapenetik. Alabaina, haien eskuhartzea beharrezkoa da dokumentuen hornitzeko (argazki, lekukotasun eta abar...) eta prest izan behar dute haurrek etxean egin galderei ihardesteko.

Ondoko orrietan bada zuhaitz genealogikoaren "eredu" bat. Baina oraingo jendartean, egoera berezia bizi duten haurren kopurua emendatuz doa (burrasoak bereiziak dira; berriz familiatuak...) eta hori konduan hartu behar da. Kasu gehienak eta familiaren irudikatzeko gomendioak Retz argitaletxearen *D'où je viens, moi?* liburuan aurki daitezke.

3 AKTIBITATEAK

HIZTEGIAREN LANTZEKO

Egoki da urtea eta iragan hurbila kontzeptuei doazkien hiztegi zehatzaren erabiltzea.

iragan urtean	heldu den urtean
iaz	urteren buruan
duela... urte	19... ren ondotik/...z geroztik
badu... urte	urte geroago

IRAGAN HURBILAREN LANTZEKO DOKUMENTUAK BALIA

▼ Argazkiak kronologian

Argazkien bilduma. Hurrei galdegin beren familiako argazkiak ekar ditzaten zenbait egunez baliatzeko. Behaketa, solasaldi, sailkapen ezberdinak antola daitezke.

Ormirudi handi batean argazkiak sailka kronologikoki, bi zutabe edo gehiagotan emanaz, denboraren markak baliatuz. Adibidez : "duela zenbait urte", "aurten" edo/eta "lehen" eta "orain".

▼ Familiaren liburuxka ikaslearen lehen fitxa

Egoki litzateke elgarrekin aztertzea agiri ofizialen datuak.

EXTRAIT DE L'ACTE DE MARIAGE N° 126

Le neuf juillet mil neuf cent quatre-vingt-trois à 11 heures 8

devant nous ont comparu publiquement en la maison commune

ÉPOUX :

Nom Errotabehere

Prénoms Pierre

Né à Jatzou

le 20 janvier

mil neuf cent cinquante-neuf

Fils de (1) Errotabehere Jean

et de (1) Elizondo Agnès

ÉPOUSE :

Nom Elichiry

Prénoms Anne

Née à St-Jean-Pied-de-Port

le 6 juillet

mil neuf cent cinquante-neuf

Fille de (1) Elichiry Bernard

et de (1) Bourris Véronique

Les futurs conjoints ont déclaré (2) qu'il n'a pas été fait de Contrat de Mariage.

Les futurs conjoints ont déclaré l'un après et nous avons prononcé au nom de la loi qu'ils sont unis par le mariage.

Délivré conforme au registre, le neuf juillet mil neuf cent quatre-vingt-trois.

L'officier de l'état civil
Scieu de la mairie

MENTIONS MARGINALES (3)

(1) Nom et prénom du père et de la mère.
(2) Compléter ainsi la formule : « qu'il n'a pas été fait de contrat de mariage » ou « qu'un contrat de mariage a été reçu le (date) par (nom et résidence du notaire) ».
(3) Jugement de divorce, de séparation de corps, de rectification de l'acte, etc.

PREMIER ENFANT

EXTRAIT DE L'ACTE DE NAISSANCE N° 1898

Le premier septembre mil neuf cent quatre-vingt-dix

à neuf heures trente

est né (1)

Errotabehere Oihana

du sexe féminin à (2) BAYONNE (Pyrénées-atlantiques)

Délivré conforme aux registres, le 3 septembre 1990

L'officier de l'état civil
Scieu de la mairie

MENTIONS MARGINALES (3)

L'Agent délégué

EXTRAIT DE L'ACTE DE DÉCÈS N°

Décédé le (4)

à (5)

Délivré conforme aux registres, le

L'officier de l'état civil
Scieu de la mairie

MENTIONS MARGINALES (3)


Voir texte des renvois en page 15

▼ Egunkari edo afitxa bilduma

Haurrek etxetik egunkari edo afitxa zaharrak ekarri eta, datak konparatuz, sailkapen kronologiko bat asma daiteke. Beharrezkoa da dokumentuek hurrei oroitzapenak gogoaraz diezaizkieten eta berek kronologiaren mugarriak sort ditzaten.

Adibidez, bi urte lehenago eta berdin hiru aste lehenago izan gertakariak (pesta handi, istripu, ekaitz bortitzak, kirol balentriak...) Dokumentu bilduma 3 urtez bildu egunkari edo afitxekin asma daiteke (ikas zikloaren denboran).

IRAGAN HURBILAREN IRUDIKAPENAK




▼ Ikasgelako murruan iraganaren xerrenda egin haurren eta burrasoen sorturteekin (ikus urteari doakion moduloa).

▼ Haur bakoitzak xerrenda landuko du ikaslearen 2. fitxa

Ariketa hau lot daiteke familiaren liburuxkari. Ongi litzateke, bestalde, ikas zikloko hiru urteen xerrendaren asmatzea.

Xerrenda honetan, gertakari batzuk agert itzazu urteen biñetei loturik.

▼ Nortasun agiria ikaslearen 3. fitxa

Ariketa honetan haurrak bere bizitzaren agiria idazten du, ziloak betez.

Nire bizitza

Ninaiz eta ene deitura da.

Nire sorlekua da.

.....urteko ren (ea)n sortu nintzen.

Orain herrian bizi naiz.

Ene nortasunaren eta biziaren berri familiaren
liburuxkan dago.

● **MUNDUKO GERTAKARIAK DENBORAREN HARIAN**

Lehen aipatu bezala, egunkariak aztertuz, haurrek artikulua zenbait bereizi eta, moztan dituzte. Horietan oinarrituz, orma xerrenda bat egin dezakete eta hartan azken hamar urteetako gertakari nagusiak eman. Oroitaraz dezagun egunkarien azken hamar urteetako artikulua Interneten bidez atzemaiten ahal direla.



IKASLEEI INKESTA EGINARAZ ETXE BARNEKO TRESNEZ



ikaslearen 4. eta 5. fitxak

Noizbehinka tresna zahartuak edo hondatuak aldatu behar direla ohartaraziz, hurrei galda honelako taularen betetzeko burrasoen laguntzarekin.

Ondorioen ustiapena eskolan eginen da ikasle guzien datuak bildurik, fitxaren betetzea banazka edo taldean egin daitekeelarik.

Telebista										
Xane	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008
Xabi										
Izaskun										
Peio										

Argibidea :

Grisa : lehen telebista

Gris iluna : bigarren telebista

Zuria : telebistarik gabe

Galderak : Nork du telebistarik berriena? tresna zaharrena? Noiz erositzen zara?




Honelako galderak egin baina ere galdera idekiagoak, adibidez : Taula honek zer erakusten du?

Xani zer gertatu zaio bere etxean? Peio eta Amaiaeren egoerak berdina ote dira? Beren etxeko egoeratik abiatuz, galdera eta irudikapenen bidez hurrek iragan hurbila lantzen dute.



IKASGELAKO IKASLEEN ARGAZKI KOLEKTIBOAK (urtez-urte bilduak) SAILKA.

Haurrak beren lagunen aurpegiak eta gorputzen bilakaerari ohartaraz.



ZUHAITZ GENEALOGIKOA

Bakoitzak bere zuhaitza eraikiko du, nortasun agiria bezala, ezberdina eta pertsonala baita.

Zuhaitz genealogikoaren lantzeko, ahal bezainbat xehetasun bildu behar da : izen, deitura, argazki...


Horretarako, ez da eskema eredurik eskainiko baina irakasleak haur bakoitzari, familia egoeraren arabera proposatuko dio.

■ Bibliografia : D'où je viens, moi? Denise Rebondy. Retz argitaletxea.


Aiton-amonen oroigarria. Erein argitaletxea.

▼ Zuhaitz genealogiko mota ezberdinak ikaslearen 6. fitxa.


zuhaitz erroduna



zuhaitz adarduna



Haurrari bi eskemak emanen zaizkio eta bere familiaren irudikapena egingen du berari gogoko zaion bezala. Edo berdin biak egingen ditu.

▼ Zuhaitz genealogikoak honelako itxura polita har dezake ikaslearen 7. fitxa▼ Beste zuhaitz eredu bat ere proposa daiteke ikaslearen 8. fitxa

4 . E B A L U A K E T A

lehen ariketa

Hizkuntza
Denboraren egituraketa

Urteak eman laukietan eta biñetak urte egokiari lot.

												aurten


- Duela hamar urte
Amaia sortu zen.
- 1999 baino hiru urte aitzin
Xanek xirrindula berria estrenatu zuen.
- 1993 pasatu eta 3 urteren
buruan, burrasoek autoa erosi zuten.

2. ariketa

Denboraren egituraketa
Goi maila

Zuhaitza osatzen.


Ene osaba Beñat aitaren anaia da eta Maddi amaren ahizpa. Beñat, Maddi, aita, ama eta zure burua honelako zuhaitzean eman itzazu.



Denboraren egituraketa

Goi maila

Urteak eman itzazu beren laukian.



ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
1 Espazioaren eta denboraren oinarritzko kontzeptuen eraikuntza

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 88. or.).

Bere burua, iragan edo etorkizun hurbilean koka dezake eta gero aitzinatuz bezala, urrunagoko iraganean eta etorkizunean.	  
Urtea kudeatzen edo antolatzen duten egutegien ezagutza egiten du (urtea, ikasturtea, sasoinen zikloa...).	 
Bere espazio ezagunaren irudikapen sinpleen egiten hasten da eta gero experimentaziotik urrunduak dauden espazio abstratuagoak kondutan hartzen ditu ; bere burua horietan kokatzen ahal du.	 

2 Metodologia jakintasunak

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 89-91 or.)

Notizietan eta liburuxketan dauden argitasunen erabiltzeko gai da.	 
--	---

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN HIZKUNTZA JAKINTASUNAK
1 Ahozko hizkuntza erabili

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 94. or.).

Bere ekoizpenen, jarreraren eta ekimenen aipatzeko, haurrak bere solasaldia eskema logiko batean sartu behar du.	  
Haurrak, plantan hitzegiteko eta joskera osatuagoaren erabiltzeko gai izan behar du.	  

2 Hizkuntzaren menperatzeko jakitateak

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 100-101. or.).

Hiztegia : haurrak, kontestuaren arabera, hitz baten erranahi zehatza bereizi behar du.	  
Ortografia : testu bat hutsik egin gabe kopiaatu behar du.	 

ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ERAKAS ALORRETAJAK JAKINTASUNAK
1 Matematika/neurriak

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 111. or.).

Memento batzuen ezagutzeko edo iraunaldien kalkulatzeko egutegia eta ordulari digitala edo berdin orratzekilakoa erabiltzen jakin behar du.	   
---	---

2 Munduari ohartu (ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 112. or.).

Urrats kronologikoen ordenatzen hasten da urruneko iragana bereiziz. Horretarako, zibilizazio elementu batzuetatik eta berak belaunaldiez duen esperientziatik abiatzen da.	   
---	---

Iraganari dagokion informazio bat identifikatzen du kronologia batean kokatuz (lehen, gero, denbora berean).	   
Plano sinple bat bere argibideekin eraikitzen hasteko eta baliatzeko gai izan behar du. Jendeei buruzko geografia eta geografia fisikoari dagozkien elementu batzuen hiztegi zehatzaren erabiltzeko ere bai (auzoa, hiria, herria; baserria; eguraldia; zelaia, mendia; etxaldea, lantegia, saltegia...).	
Ikertu dituen inguruetako elementu zenbait ezagutzen ditu aireko argazkietan eta planoetan.	
Mapetan, lur bolan edo planisfero batean kokatzen ditu ikertu dituen inguruneak.	

HIZKUNTZA EDUKIAK

GRAMATIKA EDUKIAK		ADIBIDEAK	
1. Aspektua Bururatua/ez-bururatua/gertakizuna Aditz nagusiaren aspektu-markak : -TU/-TZEN/-KO		Bi urteren buruan, atzerrira joanen gara familia guziarekin.	
2. Tempusa *edun eta izan aditz laguntzaileekin Orainaldia/iraganaldia		Duela lau urte, nere ikasgelan margotu genuen orma handi bat.	
- (a) N inesiboa		Xan Baionan sortu da. Telebista 1998an aldatu genuen. 1994an Indurainek Frantziako itzulua irabazi zuen.	
Denborazko formula bereziak		Hiru urte aitzin... Lau urteren ondotik... Heldu den urtean, iaz, duela..., hiru urteren buruan...	

HIZTEGI EDUKIAK	
Zenbatzen ikasi	1... ...2000 raino
Etxe barneko tresneria	Telebista, hozkailu, izozkailu, arropa ikuzgailu... (ikus <i>Etxetresna elektrikoak</i> . Eroski).
Familiakoen izenak	Aita, ama, arreba, ahizpa, anaia, osaba, izeba...